



## **Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren jarraibidea, 2020ko ekainaren 3koa, COVID-19ren ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan inskribatuta dauden fundazio eta elkarteei aplikagarriak diren lege-berrikuntzei buruzkoa**

COVID-19 gaixotasunaren agerpenak sortutako osasun-larrialdiaren testuinguruan, kontsulta ugari egin dituzte herritarrek, oro har, eta Euskadiko Fundazioen eta Elkarten Erregistro Orokorrean inskribatutako fundazio eta elkarteek, bereziki; Administrazio honek modu partikular eta indibidualizatuan erantzuna eman dizkie hauei guztiei.

Pandemia honen eragin ekonomiko eta sozialei aurre egin eta antolaketan eta funtzionamenduan eraginkortasun eta efizientzia handiagoa izateko asmoz, presako eta ezohiko neurri-legegileak hartu dira, euskal fundazio eta elkarteei bereziki eragiten dietenak. Hori horrela, beharrezkoa da zuzendaritza honek jarraibide hau ematea, neurri horiek bildu eta argitu, eta aplikazioari segurtasun juridiko handiagoa emate aldera.

Illo horretan, jarraian, beste arau batzuk nabarmenduko ditugu: COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren (aurrerantzean 463/2020 EDa) hirugarren xedapen gehigarria (martxoaren 17ko 465/2020 Errege Lege Dekretu-ELD- bidez partzialki aldatuta), sektore publikoko erakundeen, eta korporazio publikoen (funtzio publikoak betetzen dituztenean) prozeduren izapidetzeari buruzkoa; martxoaren 17ko 8/2020 ELDren 40.artikulua, urteko kontu indibidual edo bateratuen formulazioa eta onartzea, eta kontabilitate-egiaztapenari buruzkoa, bai eta, legez eska daitekeenean, kudeaketa-txostena eta gainerako dokumentuei buruzkoa; eta erakunde horiei aplikagarri zaizkien argibide eguneratuak eta aldaketak:

### **1.- ADMINISTRAZIO EPEEI DAGOKIONEZ**

463/2020 EDren 3.xedapen gehigarriak (3.XG), 465/2020 ELD bidez ezarritako idazketan, **terminoak bertan behera utzi (edo hobeto eten<sup>1</sup>) eta indarrean dauden administrazio-prozedurak eteten zituen**, epeen zenbaketa berriro

---

<sup>1</sup> Administrazio-epetik etetea, eta ez bertan behera uztea, aipatu behar dela dio *Estatuko Abokatutzaren 2020ko martxoaren 20ko txostenak*; izan ere, txostenak berak bi kontzeptu horiek bereizten ditu, arauaren interpretazio finalista baten bidez, xedapen horretan dagoen kontraesana salbatuz; izan ere, etete-kasu baten aurrean gaude (epeak ez dira bertan behera gelditzen); epea denboran izozten baita eragozpen edo lege-arrazoi bat dela medio, eta inguruabar hori desagertuko denean epea berriro hasiko da, etenaldia gertatu zenean geratu zen egoera berean. Bertan behera uzteak, etenaldia gertatzen denetik epea hutsetik hasia ekarriko luke.



hasiko zelarik alarma-egoerak edo haren luzapenek indarra galtzen duten momentutik aurrera.

Neurri honen irismena eta helburua ondorengo bermatzea izan zen: herritarrei egoera berezi honetan kalterik edo kargarik ez eragitea.

Horrela, sekuentzia honen aurrean egongo ginateke:

- Eten-epearen **hasiera**: alarma-egoera deklaratzeko
- Eten-epearen **amaiera**: alarma-egoeraren edo haren luzapenen indarraldiaren amaiera
- Eten-epearen **amaierak dakarrena**: administrazio eten-epearen amaieran epeei berrekingo zaie, geratzen den denborarako, inola ere zerotik hasi gabe.

Ondoren, maiatzaren 22ko 537/2020 EDren arabera, **2020ko ekainaren 1etik** aurrerako ondorioekin, indargabetu egin da administrazio-epeak eteteari buruzko 463/2020 EDren 3.XG.

Beraz, egun horretatik aurrera, etenda geratu ziren egintzen epeen zenbaketari **berriz ekiten zaie** (ez dira "berriz hasten"), jarraian zehaztutako urteko kontuen formulazioa eta onarpenaren salbuespenarekin.

## 2.- URTEKO KONTUEN FORMULAZIOA ETA ONARPENARI DAGOKIONEZ

Martxoaren 17ko 8/2020 ELDren 40.3 artikulua honako hau ezartzen du: "Urteko kontu arruntak edo laburtuak, banakakoak edo bateratuak, ekitaldia ixten denetik zenbatzen hasita hiru hilabeteko epean formulatzeko betebeharra etenda geratzen da, 2020ko ekainaren 1a arte, pertsona juridiko baten gobernu- edo administrazio-organoari dagokionean, eta, legez eska daitekeenean, sozietateen legeriaren arabera eska daitezkeen kudeaketa-txostena eta gainerako dokumentuak ere; epea berriz hasiko da, **beste hiru hilabetez**, data horretatik zenbatzen hasita. Aurrekoa gorabehera, baliozkoa izango da pertsona juridiko baten gobernu- edo administrazio-organoak alarma-egoeran egindako kontuen formulatzea".

Jarraian, xedapen hori zehazten da:

- **Kontuen formulazioa**

Euskal Autonomia Erkidegoko Babeslaritzaren aurrean kontuak aurkeztera behartuta dauden fundazio eta onura publikoko elkarteak, urteko kontuak formulatzeko epea amaitu gabe, urteko kontuak formulatu gabe bazeuden alarma-egoera indarrean jartzen den egunean (2020ko martxoaren 14a), eta kontuak geroago formulatzen dituztenak, **kontuak alarma-egoera bitartean formulatu ahal izango dituzte**, eta baita, nahi izanez gero, urteko kontuak formulatzeko beste **3 hilabeteko epe berria** izango dute.

Horretarako, maiatzaren 22ko 537/2020 EDren arabera, Babeslaritzak uste du epeak "berriz hasiko" direla, **2020ko ekainaren 1etik** aurrerako ondorioekin (ez dira berriro ekingo, gainerako prozeduretarako interpretatu den bezala, aurreko

atalean adierazi den bezala), 2020ko urtarrilaren 1ean bageunde bezala, eta kontuak **2020ko irailaren 1a baino lehenago formulatu beharko lirateke.**

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 2/2020 zirkularrak EAEko Sektore Publikoaren zuzenbide pribatuko entitate publikoetako, sozietate publikoetako eta fundazioei urteko kontuak formulatzeko luzapena ere aplikagarria dela dio.

Alarma-egoera deklaratu zen egunean organo eskudunak aurreko ekitaldiko kontuak jada formulatuta bazituen, bai eta formulazioa alarma-egoera indarrean dagoen bitartean egiten bada, auditoreek kontuak egiaztatzeke duten epea, baldin eta fundazioak edo elkarteak kontuak **auditore batek egiaztatzen baditu (nahitaez<sup>2</sup> edo borondatez), 2 hilabetez luzatuko** dela ulertuko da, alarma-egoera amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Edonola ere, kontu-auditoreek legez aurreikusitako epearen barruan egiaztatu ahal izango dituzte kontuak, edo, hala badagokio, 2 hilabeteko luzapenari heldu ahal izango diote.

- **Kontuen onarpena**

8/2020 ELDren 40.5 artikulua araber, "Ohiko batzar orokorra (Patronatua, fundazioen kasuan, eta Asanblada Orokorra elkartearen kasuan) nahitaez bilduko da kontuak onartzeko, urteko kontuak formulatzeko epea amaitu eta **hurrengo bi hilabeteen barruan**".

Horregatik guztiagatik, Babeslaritza honek uste du kontuak onartu beharko direla, muga gisa, administrazio-epeen etenaldia amaitu (2020ko ekainaren 1a) eta hurrengo **bost hilabeteen barruan**, hau da, **2020ko azaroaren 1a baino lehen**.

Kontuak kanpo-ikuskeri batek egiaztatzen ez dituzten fundazio eta elkarteek dagokienez, araudiak kontuak hiru hilabeteko epean formulatzeko betebeharrak ezartzen ez badu ere<sup>3</sup>, arrazoizkoa dirudi ondorioztatzea kontuak formulatzeko eta onartzeko luzapena erakunde horiei ere aplikatu behar zaiela.

Hona hemen martxoaren 17ko 8/2020 EDtik ondorioztatzen diren gehieneko epeen **adibide praktikoa**:

---

<sup>2</sup> Fundazio Legearen 33.artikulua eta Onura publikoko elkartearen Erregelamenduaren 19.artikulua.

<sup>3</sup> Indarrean dagoen kontabilitate-araudiak ezartzen duen bezala, kontuak ikuskatzen dituzten fundazio eta onura publikoko elkarteek kontuak ekitaldia itxi eta hurrengo 3 hilabeteen barruan formulatu beharko dituzte.

Muga-data	Onura publikoko elkarte	Fundazioa
Itxiera kontablea	2019-12-31	2019-12-31
Epe-etetearen amaiera	2020-06-01	2020-06-01
Kontuen formulazioa	2020-09-01	2020-09-01
Kontuen onarpena	2020-11-01	2020-11-01
Kontuen aurkezpena	2020-11-01	<b>2020-12-01</b>

- **Urteko kontuak Babeslaritzari aurkeztea**

Adibide praktikoan azaldu berri den bezala, **fundazioentzat** urteko kontuak aurkezteko gehieneko epea luzatu egiten da, horiek gordailatzeko, kontuak onartzeko epemugaren **hurrengo hilabetearen amaierara arte**, hau da, **2020ko abenduaren 1era arte**.

**Onura publikoko elkarten** kasuan, kontuak aurkezteko epea ere luzatu egingo da, baina, Batzar Nagusiak urteko kontuak onartzen dituen hilabetera arte, hau da, gehienez, **2020ko azaroaren 1era arte**.

Dena den, epe hauek gehienekoak dira. Babeslaritzak erruz gomendatzen du 2019ko kontuak lehenbailehen formulatzea, onartzea eta gordailatzea; alde batetik ariketa ekonomikoak ez daitezen pilatu, eta zuzendu edo argitu beharrekorik bada, gaiak zaharkitu aurretik izateko, eta bestetik, ahalegin guztiak 2020. urtera bideratu ahal izango dira, xede sozialaren murrizketa ahalik eta txikiena izan dadin. Hori horrela, alarma-egoera indarrean dela hartutako erabakiak eta ekintzak baliozkotzat joko dira (baita fundazioak edo elkarteak alarma-egoeran egiten duen kontuen formulazioa edota onarpena, hori bada kasua). Horretarako, 8/2020 ELDk honako hauek aurreikusi ditu:

### 3.- GOBERNU-ORGANOEK ETA BATZORDE BETEARAZLEEK EDO ESKUORDETUEK ERABAKIAK HARTU AHAL IZATEKO MEKANISMOEN MALGUTASUN NEURRIAK

Alarma-egoeraren ondorioz ezarritako mugikortasun-murrizketek, gainera, gure eremuan, beste askoren artean, zuzenbide pribatuko erakunde juridikoei, hau da, fundazio, elkarte eta korporazioei, antolaketa eta funtzionamendua normaltasunez garatzeko zailtasunak ekarri dizkie.

COVID-19ren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko neurriei buruzkoa martxoaren 17ko 8/2020 ELDk, bere 40. artikuluan, administrazio eta gobernu-organoen eta merkataritza-sozietateen eta zuzenbide pribatuko beste erakunde batzuen batzar eta asanbladei buruzko martxoaren 31ko 11/2020 ELDren azken xedapenetako hamahirugarrenak bilerak urrutitik egitea ahalbidetzen du, bitarteko telematiko eta telefonikoen bidez, nahiz eta erakunde bakoitzaren estatutuetan halakorik jasota ez egon.

Hori horrela:

“Alarma-egoera bitarte, estatutuek aurreikusi ez arren, fundazioen gobernu-organoen (Patronatua) eta elkarteen (Asanblada Orokorra eta Zuzendaritza Batzordea) bilerak **bideokonferentzia** bidez edo **telefono-konferentzia anizkoitz** bidez egin ahal izango dira, baldin eta organoko kide guztiek beharrezko baliabideak badituzte, idazkariak kideen nortasuna aitortzen badu eta hala adierazten badu aktan. Akta berehala bidaliko zaie kide bakoitzaren helbide elektronikora.

Era berean, **erabakiak idatziz eta bilkurarik gabe** hartu ahal izango dira, lehendakariak hala erabakitzen badu, eta hala hartu beharko da organoko gutxienez bi kidek eskatzen badute.

Arau bera aplikatuko zaie eskuordetutako batzordeei eta eraturako gainerako nahitaezko edo borondatezko batzordeei. Bilkura pertsona juridikoaren egoitzan egin dela ulertuko da”.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak, 23. artikuluan, honako hau arautzen du, borondatez edo aukeran: “Fundazioaren estatutuek ezarri ahal izango dute organoak **bideokonferentzia bidez edo komunikaziorako beste baliabide batzuen bitartez** bildu ahal izatea, betiere bermatzen bada bileran zeinek parte hartzen duten identifikatzea, komunikazioa jarraitua izango dela, eztabaidetan parte hartu ahal izango dutela eta botoa eman ahal izango dutela. Edonola ere, bilera lehendakaria dagoen lekuan egin dela ulertzen da. Salbuespen gisa, **bilerarik egin gabe** ere hartu ahal izango ditu erabakiak patronatuak, betiere informazio- eta boto-eskubideak bermatuta badaude, botoa jaso dela nonbait agerrarazten bada eta haren autentikotasuna bermatzen bada. Erabakia pertsona juridikoaren helbidean eta *eman diren baliozko botoetatik azkena jasotako datan hartu dela ulertuko da.*”

Behin eta berriz gomendatu zaie fundazioei berariaz aurreikus dezatela aukera hori, estatutuak fundazio-araudi berrira egokitu behar zutela aprobetxatuz, eta xedapen hori euren arauetara eraman dute fundazio gehienek; beraz, horiek ez dute funtzionamendu-arazorik izango pandemia garai honetan.

Gainerako erakunde asoziatibo eta korporatiboetan, arauen isiltasuna dela medio, batetik, eta estatutuetan finkatuta egon behar izatea, bestetik, ezinezkoa zen hori egitea, harik eta ezarritako osasun-larrialdiagatik estatutuetan jasota egon gabe malgutasuna aplikatu den arte.

Bideokonferentzia eta telefono-konferentzia anizkoitza izan dira baimendutako baliabide teknikoak, erabilera-baldintzak, honako hauek direlarik:

- Organoko kide guztiek beharrezko baliabideak izatea.
- Idazkariak parte-hartzaileen nortasuna aitortzea.
- Aktan berariaz aitortzea nortasun-aitorpen hori.
- Idazkariak berehala bidal dezala akta hori bertaratutakoen helbide elektronikotara (beraz, bileran bertan idatzi beharko du, edo hura amaitzean, eta ez da berehalakoan onartu behar izango).

- Interes-gatazkarik balego, landutako gaietakoren batean, sistemak aukera eman beharko dio pertsona horri deskonektatzeko.
- Teknikoki, akta zirkularizatzea baimendu beharko da, elektronikoki sinatze aldera.

Sistema hori erabil daiteke, salbu eta erakundearen estatutuek **berariaz** debekatzen badute.

Akordioak **idatzizko bozkaren bidez eta bilkurarik gabe** hartzeari dagokionean (adibidez, gutun edo posta elektronikoko bidez), ziurtatzeko ahalmena duten pertsonak aktan jaso beharko dituzte hartutako erabakiak, eta honako hauek adieraziz:

- Parte-hartzaileen izena.
- Kide anitzeko organoaren borondatea osatzeko erabilitako sistema, parte-hartzaile bakoitzak emandako botoa adieraziz.
- Kide anitzeko organoko kiderik ez duela prozedura horren aurka egin egiaztatzea.

Babeslaritza honek aukera hau akordio puntualetarako erabiltzea gomendatzen du, eztabaida dinamika murriztu daitekeelako, eta, beraz, erakundearen aktiboki parte hartzea.

#### 4.- LIBURUAK LEGEZTATZEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamenduaren 56. artikulua (uztailaren 23ko 115/2019 Dekretua) akta-liburua, eguneroko liburua, eta inbentario eta urteko kontuen liburua legeztatzeke betebeharra ezartzen du. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikokoaren bidez ([www.euskadi.eus/erregistroak](http://www.euskadi.eus/erregistroak)) egin beharko da.

Era berean, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 23. artikulua ezarritakoaren arabera elkarte guztiek liburuak Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroan legeztatuko dituzte: elkartekideen liburuak, akten liburuak eta kontuen liburuak.

Osasun-krisiaren ondorioz berariaz arautako gaia izan ez bada ere, fundazio eta elkarteen liburuak legeztatzeke luzapenaren aplikazioa interpreta daiteke, kontuak formulatzeko epemugaren hurrengo hilabetearen amaiera baino lehen, hau da, epe administratiboaren etendura altxatu eta **hurrengo lau hilabeteen barruan**, hau da, **2020ko urriaren 1a baino lehen**.

Hala ere, epe hauek ere gehienezkoak dira, eta, beraz, legeztatzea legez aurreikusitako ohiko epea amaitu baino lehen formalizatu daiteke.

#### 5.- BESTE IZAPIDE BATZUK

537/2020 EDren arabera, fundazioek, urteko jarduera-plana aurkezteko epea, Babeslaritzari egin beharreko jakinarazpenak eta baimen-eskaerak izapidetzeko epea, eta egintzak Fundazioen eta Elkarteen Erregistroan inskribatzeko epeei

zenbatzeari berrekingo zaie, **2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin**, eteta zeuden epeak berriro zenbatzen hasi gabe.

Herritarrek Administrazio honetan aurkezten dituzten eskabideak normaltasunez izapidetzen jarraitzen da bide elektronikoz, [www.euskadi.eus/erregistroak](http://www.euskadi.eus/erregistroak) portalaren bidez.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko "**Nire Karpeta**" atalean abian dauden edo amaituta dauden espedienteak, eta jaso edo baztertu diren jakinarazpenak kontsulta ditzakezu.

Elektronikoki sinatuta  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDAZIOEN ETA ELKARTEEN  
BABESLARITZA

Toki Administrazioekiko eta Harremanetarako  
eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria

MIREN ITZIAR LIZEAGA ROMERO

**Aplikatu beharreko araudia:**

- (463/2020 ED) 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena, martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak aldatua.
- (8/2020 ELD) 8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19ren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzkoa. (19/2020 Errege Lege Dekretua), maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege Dekretuaren 8.3 eta 4. azken xedapenek eta martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 1.13 azken xedapenek aldatua.
- (537/2020 ED) 537/2020 Errege Dekretua, maiatzaren 22koa, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera luzatzen duena, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.
- 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa.
- 7/2007 Legea, ekainaren 22koa, Euskadiko Elkarteei buruzkoa.
- 115/2019 Dekretua, uztailaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.
- 146/2008 Dekretua, uztailaren 29koa, Onura Publikoko Elkarteei eta horien Babesletzari buruzko Erregelamendua onartzen duena.
- 1491/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, irabazi-asmorik gabeko entitateen Kontabilitate Plan Orokorraren arau-egokitzea eta irabazi-asmorik gabeko entitateen jardura-planaren eredia onartzen dituen.